



Izenburua	Euskarara hurbiltzeko jarrera mesedegarri eta oztopatzaileak
Egilea	Estibaliz Amorrortu eta Ane Ortega
Data	2011/04/07

aurkibidea

aurkibidea.....	2
1. Sarrera	3
2. Erdaldunen jarrerak.....	3
3. Aurreiritziak.....	5
1. Aurreriritzi mesedegarriak.....	5
2. Aurreiritzi oztopatzaileak.....	6
4. Erdaldunak zer daude prest egiteko euskararen alde.....	11
1. Euskararen alde zer daude erdaldun helduak prest egiteko?.....	11
2. Euskara ikastea: ez egiteko arrazoiak eta zein baldintzatan egingo luketen.....	12
5. Jarrera mesedegarrietan eragiten duten aldagaiak.....	14
5. Ondorioak.....	15

1. Sarrera

Euskararen normaltze prozesua hasi zenetik euskaldunak irabazteari garrantzi handia eman zaio eta jabekuntza-ikaskuntza mailako politika arrakastatsua izan dela elebidunen igoerak erakusten du: Euskadiko Autonomia Elkargoan 1981ean elebidunak %12,2 baziren 2006an %17,3 dira. Gainera, elebidun hartzaileen ehunekoak ere nabarmen egin du gora: 1981ean %12,2 eta 2006an %17,3 (Eusko Jaurlaritza 2009).

Euskaraz ez dakitenei begira, ordea, gutxi egin da, nahiz eta talde hori oraindik estrategikoa izan. Elebakarrak EAEko biztanleriaren ia erdia dira, neurri baten euskararen erabilera eragozten dute eta, gainera, euskararekiko jarrera positibo edo negatiboak transmititzen oso garrantzitsuak dira. Horregatik, ezin dira bazter utzi, haiekin kontatu behar da euskarak aurrera egingo badu.

Jardunaldi hauetako izenburuak dakarren bezala, euskara haientzat zer den, nola bizi duten eta euskarara hurbiltzeko zer dauden prest egiteko jakin behar da. Haiei begirako plangintza-neurriak arrakastatsua izango dira baldin eta haiek onartzen badituzte.

Erdaldunen garrantzi estrategikoaz jabeturik, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eskaturik, 2006tik 2009ra *Amaraura* Ikerketa-taldeak erdaldunen euskararekiko jarrerak eta aurreiritziak aztertzeari ekin zion, bigarren atalean azaltzen den bezala.

Txosten honetan, erdaldunak euskarara hurbil daitezen zein aurreiritzi indartu behar den (mesedegarriak direlako) eta zein indargabetu behar den (oztopatzaileak direlako) zehaztuko da. Bestetik, garrantzitsua da euskaraz ez dakitenak zer dauden prest egiteko argi uztea, zein plangintza-neurri izan daitekeen eraginkorra aurreikusteko.

Aurrera joan aurretik, komeni da ohar bat egitea. Hemen azalduko diren jarrerak partaideek esandakoak dira, hau da, haien nahia, interesa, ekintzarako intenzioa adierazten dute baina ez dute benetako jokabidea neurtzen. Gauza jakina da esandako intenziotik ekintzara alde handia dagoela baina, aldi berean, argi dago ekintzaren aldeko intenziorik egon ezik zaila dela ekintzara heltzea.

Ondorenean, ikerketa nagusiaren helburuak, datuak batzeko eta aztertzeko metodologia eta emaitza nagusiak laburbiltzen dira, bigarren atalean. Hirugarrenean, euskarara hurbil daitezen dituzten aurreiritzi mesedegarri eta oztopatzaileak aurkezten dira banan-banan. Laugarrenean, zer dauden prest egiteko euskararen alde eta zein arrazoi duten euskara ikasten ez jartzeko, eta zein egoeratan egingo luketen. Bosgarren atalak jarrera mesedegarriak eragiten dituzten aldagaiak aurkezten dituzten aldagaiak aurkezten dira. Amaitzeko, ondorioak biltzen dira seigarren atalean.

2. Erdaldunen jarrerak

Txosten honetan aurkeztuko diren datuak 2006-2009 urte bitartean burutu zen *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* (Aморrortu eta beste 2009) izeneko ikerketa-lan zabaletik hartuta daude. Aipaturiko ikerketa bi helburu nagusik bideratu zuten:

- Alde batetik, nagusiki Euskadiko Autonomia Elkargoko erdaldunen euskararekiko jarrera-, uste- eta aurreiritzi-aniztasuna sakon ezagutzea
- Bestetik, euskararen alde ahaleginak egiteko prest dauden talde sozialak identifikatzea, baita zein baldintzatan, euskarara hurbiltzeko zer egiteko prest dauden ezagutzea ere.

Helburuok betetzeko metodo osagarriak erabili dira: eztabaida-taldeetan partaideek eurek mahairatutako datuak modu kualitatiboan aztertu dira, *Edukiaren analisiaren* bidez; ondoren, garrantzitsu jo ziren zenbait auzitan, eta galde-sorta baten bidez, kuantitatiboki sakondu da.

Ikerlanaren xedeak kontuan harturik, erdalduntzat, euskara zertxobait jakinagatik, elkartruke komunikatibo sinpleenak aurrera eramateko gai ez dena hartu da. Kasu askotan erdaldunak euskara ikasten aritu dira baina ez dute arrakastaz lortu hizkuntzaren jabe egitea. Ikerketaren azter-eremu nagusia erdaldunengan egon arren, eztabaida-taldeak aberatsago egiteko asmoz, bertan euskaldunek ere hartu zuten parte; galde-sortan, berriz, erdaldunek baino ez. Txosten honetan, bai eztabaida-saioetatik ateratako aipuak bai galdesortako itemak gaztelaniaz ematen dira, partaideek, hurrenez hurren, sortu eta entzun zituzten bezala.

Ikerketa kualitatiboa burutzeko hamabi eztabaida-saio egin ziren (Bilbo, Barakaldo, Gasteiz, Iruñea, Donostia, Durango eta Zarautz) eta bertan 47 lagunek parte hartu zuten. Hamabi talde horietatik zortzi adina, sexu, lanbide, euskararen hizkuntza-gaitasun eta ideologia politikoa kontuan hartuta heterogeneoak ziren, beste lau lanbide-esparru zehatz batzuetakoak ziren, zehazki, enpresariak eta kazetariak. Eztabaida-saioak osorik transkribatuta, irtendako gai eta ideiak egitura hierarkiko baten bidez aztertu eta sailkatu dira.

Emaitza nagusiak ondoko hauek dira: erdaldunen euskararekiko jarrera eta aurreiritzien kategorizazioa biltzen duen tipologia, eta bereziki emankorra suertatu den gizatalde baten identifikazioa, *bai-bainakoak* deiturikoaena, hain zuzen. Talde horren gaiak eta gai horiekiko erakusten dituzten jarrerak dira ondoren egin den ikerketa kuantitatiboaren oinarria. *Bai-bainakoek*, euskararen eta bere aldeko politikaren kontra egon gabe, azken horri mugak ipintzen dizkiote eta jarrera epela, konplexua eta batzuetan kontraesankorra dute.

Bestalde, eta arestian esanda bezala, analisi kualitatiboaren emaitzetan oinarrituta galdesorta diseinatu da, bi helburu izanda: lehendabizi, eztabaidetan agertutako ideiak Euskadiko biztanleria osora zein punturaino orokortu daitezkeen antzematea, eta, bigarrenez, ideiak zein gizataldeetan diren ohikoagoak zehaztea. Galdesortaren helburua ez da izan eztabaidetan agerturiko jarrera denak neurtzea, baizik eta *bai-baina* motakoen artean maizen ageri direnei arreta ipintzea. Gainera, galderak zehazterakoan ikerlarien interpretazio edo kontzeptualizazioak erabili ordez partaideen euren adierazpen-moduak edo berbalizazioak hartu dira kontuan.

Euskadiko Autonomia Elkargoaren 18 eta 55 urte bitarteko 600 lagunek osatu dute ikerketa kuantitatiboaren lagina eta adina, sexu eta eskualde (erdaldunagoa edo elebidunagoa, Inkesta Soziolinguistikoa 2006 lanaren arabera (Eusko Jaurlaritzak 2008)) aldagaitan gizarte osoaren errepresentatiboa da.

Ikerketa kuantitatiboaren emaitza nagusiak ondoko hauek izan dira: ikerketa kualitatiboan agerturiko jarreraren, eta batez ere *bai-bainakoek* erakutsitakoen, maiztasuna; jarrera komunak dituzten taldeen identifikazioa (*aldekoagoak*, *bai-bainakoak* eta *kritikoagoak*) eta haien ezaugarri sozialen deskribapena; eta euskararen alde talde horietako bakoitza zer dagoen prest egiteko zehaztapena.

3. Aurreiritziak

Euskarari, eleaniztasunari eta hizkuntzen jabeakuntza eta irakaskuntzari buruzko aurreiritziak edo uste orokortuak oso garrantzitsuak dira euskararekiko jarrerak osatzeko orduan. Batzuk euskarara hurbiltzeko eta bere aldeko erabakiak hartzeko mesedegarriak dira; beste batzuk, berriz, oztopatu egiten dute hurbilketa. Gainera, asko uste okerretan oinarrituta daude (ikus Moreno Cabrera 2000) baina hemen okerrak ala zuzenak diren baino euskararen aldeko ekintzari begira mesedegarri ala oztopatzaile diren azalduko da.

Lehendabizikoen artean, *euskara ez da “baseritarren” hizkuntza (lengua “de aldeanos”), umeez erraz ikasten dute, zenbat eta hizkuntza gehiago hobea, aniztasuna aberasgarria da eta euskara hizkuntza ederra da.* Kaltegarrien artean, *euskara zaila da, euskarak arrosa koloreko etorkizuna dauka, ondo hitz egin behar da, elebitasuna ez da posiblea, eskolan ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko, hizkuntza bakarra hobea eta heziketa txarrekoa da parekoak ez badaki euskaraz egitea.*

Bigarren atalean aipatua bezala, ikerketa kualitatiboan eztabaidetan agertu ziren denak, sarri zein behin agertu, aztertu ziren eta ikerketa kuantitatiboan batzuek Euskadiko erdaldunen artean duten presentzia neurtu zen.

1. Aurreiritzi mesedegarriak

1.1. Euskara ez da “baseritarren” hizkuntza (lengua “de aldeanos”)

Euskararen normalizazio prozesuaren hasieran, bai euskaldun batzuen artean baina, batez ere, euskaldunak ez zirenen artean, zabal zebilen aurreiritzi hau eztabaidetan jaso ez bazen ere, ikerketa kuantitatiboan haren presentzia neurtzea erabaki zen. Datuek emaitza positiboak erakutsi dituzte: inkestatuena % 8,5 baino ez dago ados edo oso ados euskara baseritarren hizkuntza dela aurreiritziarekin (G 10.11: El euskera sigue siendo una lengua de aldeanos), % 80 ez dago ados edo batere ados ez dagoen bitartean. Datu hauek, zalantzarik gabe, euskarak azken hamarkadetan prestigioa irabazi duela eta garai baten zeukan estigmatizazioa gainditu duela erakusten dute.

1.2. Umeez erraz ikasten dute

Aurreiritzi hau helduentzat *bigarren hizkuntza bat*, batez ere euskara, *ikastea ezinezkoa da* aurreiritziarekin batera ageri da. Lehena guraso erdaldunek haien seme-alabak euskarazko murgiltze ereduetan eskolaratzeko oso mesedegarria da (ikus Amorrortu eta Ortega 2009); bigarrena, berriz, gero erakutsiko den moduan, helduek euskara (pixka bat) ikasteko oso oztopatzailea.

(1) *Yo creo que todo lo que aprendes de pequeño luego lo puedes recordar, o lo puedes... Y si no lo aprendes de pequeño, luego es mucho más difícil, pienso yo. (DU-C, 48).*

1.3. Zenbat eta hizkuntza gehiago hobea, aniztasuna aberasgarria da

Aniztasunaren aldeko aurreiritzia oso zabaldua dago, kontrakoa uste duenik ere dagoen arren (ikus geroago *hobe da hizkuntza bakarra*). Eleaniztasunaren aldeko aurreiritzia mesedegarria da euskarara hurbiltzeko.

(2) *Yo personalmente creo que cuantos más idiomas tengas mejor. Pero hablando lo que estamos hablando ahora, yo creo que si vives aquí euskera y castellano, esos dos idiomas, yo creo que hay que intentar mejorar, hay que intentar conocerlos. (DU-B, 224)*

Aurreiritzi horrek eleaniztasunaren aberastasuna ere indartzen du, eleaniztasunak kultura-aberastasuna eta mentalitatea zabaltzea dakarrelako. Hizkuntzak jakiteak beste mundu batzuk, beste errealitateak ezagutzea ahalbideratzen du eta beste errealitate batzuk ezagutzeak mentalitatea irekitzen dizu:

(3) *Es que eso es lo que hay que pensar, si es algo enriquecedor, si cuanto más idiomas hables, la mentalidad tienes muchísimo más abierta, eso para empezar, y que entiendes mucho mejor las demás realidades y las demás culturas. (BI-D, 287)*

Euskararen kasuan, guraso erdaldun askorentzat, eleaniztasunaren aldeko aurreiritzi hori beste batekin batera ageri da: *hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste hizkuntzak*. Eleaniztasunaren abantailak gogotan hartuta, askorentzat, seme-alabak txikitatik elebidunak izatean errazagoa izango da beste (atzerriko) hizkuntza batzuk ikastea:

(4) *Ya de entrada, sabes que hay dos idiomas, y eso es un logro y luego a la hora de aprender otro es mucho más fácil porque estás acostumbrado a pensar en dos idiomas. (BI-B, 288)*

1.4. Euskara hizkuntza ederra da

Azkenik, berez egia ez gezurra ez den aurreiritzi hau kontuan hartu behar da, euskarara hurbiltzeko mesedegarria da-eta. Horrelako aurreiritzi estetikoak oso ohikoak dira gizarte askotan (*alemana itsusia, gogorra da; italiara alaia eta polita* eta abar) eta normalean hizkuntzarekiko aurreiritzia baino hizkuntza horren hiztunekiko aurreiritzia islatzen dute.

Ikerketako partaideek euskara ezaugarri bereziko hizkuntza dela indartu zuten: egitura bereziko, aldaki anitzekoa, xehetasun-maila eta garatzeko gaitasun handikoa eta eraketa lexikala kontuan hartuta, oso polita eta aberatsa. Ikus ondoko aipuak:

(5) *Lengua muy rica, con unas peculiaridades muy amplias, hablada por muy poquita gente. (BA-B, 139)*

(6) *Cómo van surgiendo las palabras, cómo se hacen las estructuras... / Coges el diccionario, y todas las palabras están encadenadas y con una palabra aprendes cinco, eso en ninguna lengua pasa. (BI-E 422/424)*

Ikerketa kuantitatiboan *euskara polita da* aurreiritziak EAEko erdaldunen artean daukan presentzia neurtu zen (G10.10: El euskera es una lengua muy interesante y bonita): %67k interesgarri eta polita dela iritzi dio eta horrekin ados ez daudenak %9,2 baino ez dira.

2. Aurreiritzi oztopatzaileak

2.1. Euskara zaila da eta heldutan ikastea ezinezkoa da

Bi aurreiritzi horiek lotuta daude eta oso zabal dabilta. Heldu erdaldunek euskara ikasteko oso oztopatzaile badira ere seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzeko mesedegarriak dira.

(7) *Entonces, yo creo que los idiomas, por mi experiencia, se tienen que aprender desde pequeño, de una forma como ha dicho él, natural. Porque luego, por cabezas o por todo, o porque tienes igual... estás haciendo otras cosas y tal, te cuesta mucho entenderlo, porque piensas en castellano y tu cabeza piensa en castellano, tiene que traducir al euskera y luego decirlo. (BA-C, 38)*

Bi arrazoi nagusi aipatu dira euskararen zailtasuna azaltzeko: alde batetik inguruko hizkuntzekiko daukan distantzia tipologikoa eta bestetik, gramatika zaila omen daukala. Ikus ondoko aipua:

(8) *Y luego yo sigo diciendo, para mí, o sea, es una opinión mía, personal, que el euskera como lengua es difícil, es de las lenguas más difíciles. Igual porque no tiene raíces latinas, y nos basamos en el castellano. (DO-C, 161)*

Hizkuntzak ez dira haien osotasunean zailagoak edo konplexuagoak batzuk besteak baino; atal bat konplexuagoa izan daiteke hizkuntza baten beste baten baino -esate baterako, A hizkuntzak B hizkuntzak baino fonema gehiago baditu, B hizkuntzako hitzunik heldutan A hizkuntza ikasteko bere hizkuntzan ez dituzten fonemak ikasteko zailtasuna izan dezakete- baina beste atal bat sinpleagoa izan daiteke A hizkuntzan B hizkuntzan baino (esate baterako, aditz morfologian ezberdintasun gutxiago egiten badira). Beraz, bigarren hizkuntzaren ikaslea zein hizkuntzatik abiatzen den eta hizkuntzaren zein atal kontuan hartzen den alde handia egon daiteke, ikasteko zailtasunari buruz berba egiterakoan.

Egia da heldu denek ez dutela hizkuntza bat ikasteko erraztasun bera (Ikus Moreno Cabrera 2000: 115-136) hizkuntzen eta hizkuntzak ikasteko zailtasunei buruzko eztabaidarako). Motibazioak zeresan handia dauka eta pertsona bik motibazio antzekoa izanda ere bakoitzaren gaitasunek ere egin dezakete diferentzia.

Baina euskara zaila delako eta helduentzat ikastea ezinezkoa delako pertzepzioa aztertzerakoan ez dirudi pertzepzioa duen pertsonaren ezaugarri soziodemografikoek eragina izan beharko luketenik. Ikerketa kuantitatiboan *euskara hizkuntza zaila* delako aurreiritzia aztertzeko euskara ez ikasteko arrazoi-zerrendaren barruan eman zaie erantzuleei (G9.6: No aprendo euskara porque me parece muy difícil). Guztien %31k aipatu du “zaila delako” euskara ez ikasteko arrazoi moduan, baina erantzun hori identitate-sentimenduekin gurutzatuz gero, emaitza azpimarratzekoak aurkitu dira: haien burua gehien bat espainiar dutenen erdiak (%50,6) euskara zaila delako arrazoia eman du, bai espainiar bai euskal herritar dutenen hirutik batek (%29,2) eta gehien bat euskal herritar dutenen lautik batek (%24,20).

Euskara zaila delako pertzepzioa berez ez dute zertan sarriago izan identitate sentimendu bat edo bestea dutenek. Auzitan jartzen ez den aurreiritzi hori euskara ikasteko oso kaltegarria da: kontrako jarrera dutenek aitzakia moduan erabil dezakete baina kontrako jarrera ez dutenentzat ere frustrazio eta errudun-sentimenduen iturburu izan daiteke, euskara ikastea kasu askotan oso neurri handian oztopatuz.

2.2. Euskarak arrosa koloreko etorkizuna dauka

Euskara galtzeko arriskua dagoen ala jadanik salbu dagoen ez dira partaideak ados jartzen. Gogoratu behar da hogeigarren mendeko hirurogeigarren hamarkadatik aurrera euskara berreskuratzeko herri-mugimendua piztu zuen osagaietarik bat *euskara galtze* dagoelako aurreiritzia izan zela. Galeraren kontzientziak, besteak beste, ziztatu zituen lehengo euskaldunak alfabetatzeko eta gero erdaldun asko euskalduntzeko.

Ikerketa kualitatiboak euskara arriskuan dagoen ala ez pertzepzioan euskaldun eta erdaldunen artean alde handia aurkitu zuen: euskaldun askok, euskara normaltzeko oraindik falta denean indarra ipiniz, etorkizuna ez dagoela bermatuta adierazi zuten; erdaldunen artean, ostera, zabaldua dago *euskararen etorkizun arrosa kolorekoa* deitu den arinkeria. Arinkeria horren azpian zera dago: euskararen normalizazio-bidean erakunde publikoetan neurriak hartu direnez, orain esparru publikoan erabiltzen denez eta, batez ere, hezkuntza sistemari esker ume “denek” ikasten dutenez, euskarak etorkizun zorionsua besterik ezin duela izan, hots, euskararen egoera gutxitua berez, denborarekin, konponduko dela.

Arinkeria horrek ez ditu aintzakotzat hartzen egoeraren konplexutasuna, hizkuntza txikiek mundu globalizatuan dituzten zailtasun eta mehatxuak eta euskara edo euskaraz ikasteak ez duela erabilera bermatzen. Kasu hobereenetan horrelako adierazpenok ezjakintasun-neurri bat erakusten dute eta beste batzuetan arazoa sinpletzeko estrategia bezala erabili daiteke, “ez dakit zergatik kexatzen zareten”. Ikus ondoko eztabaida (Oharra: DU-C partaide euskalduna da eta DU-A eta DU-B ez).

(9)– *No creo que vaya a desaparecer...* (DU-A, 469)

– *A mí me parece al revés totalmente.* (DU-C, 470)

– *¿Sí?* (DU-B, 471)

– *¿Que no va a desaparecer?* (DU-M1, 472)

– *No.* (DU-C, 473)

– *Yo, la tendencia que veo es que los idiomas pequeños desaparecen.* (DU-B, 474)

– *Si no ha desaparecido cuando no esto... ¿cómo va a desaparecer ahora?* (DU-C, 475)

– *Pero los idiomas pequeños están desapareciendo y cada año, y cada diez años y...* (DU-B, 476)

– *Tal y como está llevado así desde luego yo creo que es imposible que desaparezca.* (DU-C, 477)

Arinkeria hau hain zabaldua zegoela ikusirik, kuantitatiboki neurtzea erabaki zen, erantzuleei hurrengo baieztapenarekin adostasun-maila erakuts diezaioten eskatuz (G10.6: El problema del euskera se solucionará con el tiempo porque las y los niños lo aprenden en la escuela). Baikortasun nahikoa orokorra erakusten dute emaitzek: %67,5 ados edo guztiz ados dago baieztapenarekin. Kezkagarria da erdaldun gehienek arinkeria den pertzepzio hau izatea.

2.3. Ondo hitz egin behar da edo batzuek ondo hitz egiten dute baina gehienek txarto

Jarrera sobera preskriptiboetan oinarritzen diren aurreiritzi hauek oso zabalduta daude mendebaldeko gizarteetan baina euskara moduko hizkuntza gutxitu batentzat bereziki kaltegarriak izan daitezke erabilera eragozten dutelako. Euskaldun berriek *bantu*, *euskara berria*, *eskolakoa*; euskaldun zaharrek *etxekoa*, *landu gabekoa*; zaharrek *etxe-etxekoa*, *alfabetatugabea*; gazteek *euskañol*. Badirudi euskaraz inork ez duela ondo hitz egiten.

Hizkuntza egokiaren erabilera beharrezkoa dela eta egoera batzuetan jarrera preskribatzaileak ezinbestekoak direla, hala nola irakaskuntzan, komunikabide ofizialetan, argi izanda ere, ez da komeni jarrera horiek egoera eta erregistro guztietara orokortzea. Euskararen moduko egoeran dagoen hizkuntza batentzat, non batez ere erabilera bultzatu behar den, hiztun kopurua gehitzeko eta hiztunak txarto hitz egiten duen ala ez epaiaren menpe ez sentitzeko ahalegina egin behar da, nagusiki eremu ez-formaletan.

2.4. Elebitasuna ez da posiblea

Erabateko elebidun edo elebidun osoa izatea posible den ala ez partaide askorengan interesa piztu du. Batzuentzat (ikus 10. aipua) ezinezkoa da; hizkuntza bat beti gailenduko zaio besteari eta gailentzen dena beti izango da lehen hizkuntza:

(10) *Pues yo, aunque sepa francés, si yo tuviese que estudiar en francés pues no es lo mismo, para mí. Ahora, si son totalmente bilingües desde el principio y eso, pues igual sí, pero si dominan una más que otra, desde luego no, pienso que no, ¿eh? / Yo creo que, de todas formas, cada uno tiene un idioma, o sea, aunque seas bilingüe yo creo, pienso que tiene que ser así, ¿eh? No lo sé. (...)/ ¿Vosotras creéis que puede estar dividida la mente así como para dos idiomas exactamente igual? / Sí, pero ellos pensarán en algún idioma, o soñarán en un idioma o...en uno de los dos o ¿en los dos? / Cada uno piensa en un idioma. No puedes pensar en dos, ¿no? (DU-C,21/225/227/230/244)*

Aurreiritzi hori, sarri eskolan *ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko* aurreiritziarekin batera ageri da, eleaniztasunerako oso kaltegarria da eta elebitasuna elebakartasun biren batura dela iradokitzen du, eleaniztunek hizkuntza ezberdinak modu berean, gaitasun eta helburu berarekin ez dituztela zertan jakin ez baitu kontuan hartzen.

2.5. Ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko

Murgiltze-programetan ikasten duten familia erdaldunen seme-alabek gutxiago ikasten dutelako usteak, edo zalantzak behintzat, oraindik badirau batzuen artean:

(11) Yo he estudiado en castellano. Entonces.... Pero yo pienso que si estudio en una lengua que no es la mía no puedo aprender igual ni por nada. Yo veo que mis hijos también, cuando han estudiado en euskera algunas asignaturas que les ha tocado, han estudiado algunas asignaturas en euskera, yo veo que el conocimiento..., o sea, ni la cuarta parte que si lo hiciesen en castellano. (DU-C, 17)


Ikerketa kuantitatiboan aurreiritzi horren presentzia neurtu zen: “Los niños de familia no vasco-hablante que estudian en euskera aprenden los contenidos de las asignaturas pero que si lo hicieran en castellano” (G10.4) baieztapenaren aurrean adostasun mailakatua emateko eskatu zitzaizen galdesorta-erantzuleei: ia hirutik batek (%29,30) euskaraz ikasten duten familia erdaldunen umeei gutxiago ikasten dutela uste du eta ia bostetik batek (%18,40) ez daki erantzuten. Tamalgarria da gizartean hezkuntza-sistema elebidun eta eleanitzek balia dezaketen edukien transferentzia eta hizkuntzen trataera bateratuari buruz zeinen ezjakintasun handia erakusten duten erantzun hauek. Lehen hizkuntzan eta eskolan ikasitakoan behar bezalako gaitasuna badute ikasleek eta ikaste-prozesua behar bezala ematen bada ez dago inolako arazorik lehen hizkuntza ez den beste baten arrakasta akademiko osoarekin ikasteko.

2.6. Hizkuntza bakarra hobe

Denontzat hizkuntza bakarraren abantailak azpimarratzen dituztenak normalean elebakarrak izaten dira eta hala esaten ez badute ere, hizkuntza bakar hori haiena izatea espero dute. Euskararen kasuan aurreiritzi horrek euskararen kontrako jarrera eta balorazio eskasa ezkututzen du gehienetan.

(12) Es que a mí no me parece un problema que se pierdan los idiomas, o sea, que se dejen de hablar. O sea, a mí si el castellano se perdiera y sólo se hablara inglés en todo el mundo, me parecería una ventaja, sería más fácil entenderse con cualquiera en cualquier parte del mundo. (GA-B, 195)

Aurreiritzi hori oso zabalduta dago, ikerketa kuantitatiboak erakutsi duen moduan:



1. irudia: Hobe hizkuntza bakarra aurreiritzia

Kezkagarria da baieztapenarekin ados edo oso ados daudenen ehuneko altua: %39. Hala ere, euskara jokoan dagoenean, galtzeko posibilitatea arazo moduan antzeman du gehiengoak, ia %70 ez dago ados edo ez dago batere ados “A mí no me parece un problema que se pierda el euskera” baieztapenarekin (G10.3).

2.7. Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz egitea

Aurreiritzi hori hizkuntza txiki edota ospe txikikoentzat oso kaltegarria da, beti galtzaile agertuko dira-eta. Denak euskaldunak izan ezik erdara pasatzea erabat normala dela eta ez egitea, ostera, heziketa txarrekoa edo, ondoko aipuan ikus daitekeenez, “ilogikoa” dela asumitzen du. Gainera, euskararen kontrako jarrera ezkutuaren adierazle ere izan daiteke.

(13) *Porque lo habla todo el mundo además. Y lo otro, como no habla todo el mundo pues es lógico irse a lo que te va a entender todo el mundo, digo yo. (DU-C, 164) [Gazte euskaldunak erraz pasatzen direla erdarara daukate hizpide]*

“Es de mala educación hablar en euskera cuando alguien no entiende” (G10.8) baieztapenaren bidez aurreiritziaren presentzia neurtu zen galdesortan: oso ehuneko altua (% 62,7) ados edo oso ados egon zen. Hala ere, egoera posible hori pertsonalizatzen denean, norberari bere aurrean euskaraz egitea inporta zaion ala ez galdetu zenean (G10.5: A mí no me importa que se hable en euskera en mi presencia, aunque yo no entienda muy bien), ia beste hainbestek (%60) ez zaiola arduraz erantzun zuen.

4. Erdaldunak zer daude prest egiteko euskararen alde


Euskara normaltze bidean, euskaraz ez dakiten helduek ikas dezaten indar eta baliabide asko ipini dira, batez ere administrazio publikoko langileen artean. Politika horrek euskararako hiztun berriak irabazi ditu: 300.000 inguru, lehen mapa soziolinguistikoa 1981ean egin zenetik laugarrena 2009an egin zenera (Eusko Jaurlaritzak 2010). Baina, hala ere, asko dira saiatuagatik arrakasta lortu ez dutenak. Izan ere, ikerketa kuantitatiboan parte hartu zutenen % 67,7 inoiz ikasten saiatu da baina elkartruke komunikatibo sinpleenak aurrera eramateko ez da gauza. Aurreko atalean euskara bigarren hizkuntza ikasteko ze aurreiritzi oztopatzaile dagoen aurkeztu da; hemen zein arrazoi eman duten euskara ez ikasteko eta zein egoeratan ikasiko luketen aurkeztuko da, baita euskararen alde zein beste ekimen egiteko prest dauden ere.

1. Euskararen alde zer daude erdaldun helduak prest egiteko?

Ikerketa kualitatiboak *bai-bainakoen* modura identifikatu ditugun erdaldunak, euskara ikasten aritu ez arren, seme-alabek ikas dezaten ahaleginak egiteko prest zeudela zantzuak agertu ziren (ikus Amorrortu et. al 2009: 194-203). Ikus ondoko aipua:

(14) *Soy del 65. Me tocó la época mala, no conseguí aprender a hablar en euskera. Ya he estado yo en AEK y cosas de esas, pero donde no entra, no entra. Sí me he preocupado de que mi hijos aprenden euskera. (ZA-D, 9)*

Azterketa kuantitatiboak datu horiek berretsi zituen.



2. irudia: Euskararen aldeko ahalegina egiteko batz besteko prestutasuna

Lau itemen aurrean erantzuleek 1tik (prestutasun txikia) 4rako (prestutasun oso handia) eskalan ahalegina egiteko prestutasuna erakutsi behar zuten. Bigarren irudian ikus daitekeenez, erantzuleak oso prest daude seme-alabek ikas dezaten ahaleginak egiteko eta seme-alabei euskararen inguruko jardueretan parte har dezaten laguntzeko. Baina ez daude hain prest euskara heldutan ikasten jartzeko.

Halaber, euskararen alde edozein ahalegin egiteko prestutasuna haien burua abertzale eta gehien bat euskal herritartzat eman dutenek ez-abertzaletzat eta gehien bat espainiartzat dutenek baino prestutasun handiagoa erakutsi dute, harrizkoa ez dena bestalde (id: 239-240).

Azkenik, ahaleginak egiteko prestutasun txikiena euskara ondo ikasteko erakutsi dute denek.


2. Euskara ikastea: ez egiteko arrazoiak eta zein baldintzatan egingo luketen

Mahai-inguruetan *bai-bainakoek* euskara zergatik ez duten ikasi azaltzeko beharra sentitzen dutela ikusi zen. Askok denbora falta aipatu zuten, hurrengo aipuetan erakusten den bezala:

(15) *A mí me gustaría [aprender euskera] pero no voy a hacer el esfuerzo, pero sí me gustaría saber, pero... (...) No, además, es que porque no tengo tiempo, o sea, necesito tiempo, para todas esas cosas no tengo tiempo. / Eso sí, si me enseña mi hijo, poco a poco, encantado. O sea, le leo cuentos en euskera y no tengo ni idea de lo que estoy leyendo... A veces le digo que me traduzca algo. Y además creo que leo bien porque me entiende. (BA-E, 80/94)*

(16) *Yo lo que no estoy dispuesto es a tirarme tres horas diarias todos los días de la semana durante cinco años yendo al euskaltegi para aprender, porque es que bastante tengo con lo que tengo, con trabajar, con... (GA-B, 74)*


Ikerketa kuantitatiboan eztabaidetan aipatu ziren arrazoiak neurtu ziren (G.9 multzoa):



3. irudia: Euskara ez ikasteko arrazoiak

Gehien ematen den arrazoa (laginaren %60,4k aipatu du) denbora falta da. Arrazoi hau helduek dituzten lan- eta familia-ardurak direla eta arrazoi nahikoa objektiboa izan daiteke; norberaren burua justifikatzeko arrazoa izan daiteke; eta, azkenik, euskara ikasteko modu bakarra sistema “arautu” baten bidez dela (euskaltegira egunero joan beharra) pentsatzeagatik ere izan liteke. Beste arrazoi garrantzitsu bat *euskara zaila da* (%31,6k aipatu du) eta “no se me da bien aprender idiomas” (%16,6) baieztapenaren atzean egon daitekeen aurreiritzia izan daiteke.

Bestalde, zein baldintzatan ikasiko luketen ere galdetu zitzairen euskara ikasteko interesa erakutsi zutenei (lagineko %53ri, hain zuzen). Gogoratu galdera-itemak eztabaidetan irteerako ideiak direla: baldintza batzuk emanda ia euskara ikasteko ahalegina egingo luketen.



4. irudia: Euskara ikasteko baldintzak

Laugarren irudiak erakusten duenez, proposatutako lau baldintzak egoki antzematen direla garbi dago, gehiengo batek ahalegina egingo lukeela esan baitzuen. Haietariko hiruk sistema “arautuan” barik beste modu esanguratsu batzuk iradokitzen dituzte: umeen jarduerekin lotuta (%76), aisialdiarekin lotuta (%73), euskaltegira egunero joan gabe (%72,5). Funtzionarioen modura liberatuta egongo balira ere erantzun dute gehien-gehienek (%80) baina baldintza honek konpromiso txikiena (agian irrealena eta sekula beteko ez dena) erakusten duena dela esan liteke.

Seme-alabek egiten dituzten jarduerekin lotutako aldagaiak sakonago aztertzea merezi du. Identitate-sentimenduarekin gurutzatuz gero zera ikusten dugu: haien burua gehien bat espainiar sentitzen dutela esan dutenen artean, hau da, euskararekin harreman afektibo gutxien izan dezaketenen artean, %47,20k seme-alabek egiten dituzten jardueri lotuta ahalegina egiteko prest daudela esan dute.

G8.2. Estaría dispuesto/a a aprender euskera si fuera en actividades unidas a las que hacen mis hijos/as			
	Gehien bat espaniar hiritar	Espaniar bezain euskal hiritar	Gehien bat euskal hiritar
BAI	% 47,2	% 79,7	% 80,9
EZ	% 52,8	% 1,3	% 1

1. taula: Seme-alaben jarduerekin lotuta euskara ikasteko prestutasuna

Datu hau oso kontuan hartu behar da euskara bultzatzeko esku-hartze neurriak hartzerakoan. Pentsatu beharko litzateke zein baliabide eskaini gurasoei seme-alabei laguntzeko euskara ikas dezaten, talde honek izan dezakeen motibazio bakarra edo bakarrenetakoa seme-alabekin lotuta egon baitaiteke. Bestalde, ikus Ortega eta Amorrortu (2010) euskarara hurbiltzeko egon daitezkeen motibazio ezberdinen eztabaidarako.

5. Jarrera mesedegarrietan eragiten duten aldagaiak

Ikerketa kuantitatiboak, jarrera eta aurreiritziak biltzeko erabili ziren galderez aparte, galdesorta erantzun zuten 600 lagun en ezaugarri soziodemografikoak ere batu zituen (G11-22), euskararekiko jarrera aldekoagoak, kritikoagoak eta *bai-baina* motakoak erakusten zituzten pertsonak ahalik eta gehien deskribatu ahal izateko. Ikus Amorrortu eta beste 2009 (258-278) hiru talde horiek identifikatzeko egin zen analisiari buruzko xehetasunetarako. Jarrerak azaltzeko aztertu ziren aldagai guztietatik (*sexua, adina, ikasketak, ideologia politikoa* eta abar) ondoko hauek baino ez ziren suertatu esanguratsu eta estatistikoki adierazgarri: *euskararen presentzia norberaren inguruan, identitate-sentimendua* eta *euskal abertzaletasuna*.

Euskararen presentzia neurtzeko norberaren giza sareetan euskara, bost puntuko eskalan, presente dagoen zehazteko eskatu zitzaieen erantzuleei. Inpresio hau subjektiboa izanda ere, garrantzitsua da, hiztunek inguruan dutenari buruzko bere bizipena errealitatek oso hurbil egongo delako eta, are gehiago, seguruenik pertsonaren inguruan dauden besteen bizipenaren antzekoa izango delako. Izan ere, eskualde euskaldunago edo erdaldunagoan bizitzea aldagai objektiboa erabil zitekeen; lagina aukeratzeko erabili zen, 2. atalean azaltzen den bezala, baina ez jarrerak azaltzeko eragile posible moduan, pertsona bat eskualde erdaldunagoan bizi baitaiteke (Bilbon, esate baterako) bere inguru hurbilean (familiar, lagunartean eta lanean) euskararen presentzia handia izanik. Horregatik hobetsi zen euskararen presentziari buruzko erantzuleen euren inpresioa.

Identitate-sentimendua aldagaia ohikoa da ikerketa soziolinguistikoetan, euskararen jarreretan eragina duelako ustea dagoelako. Erantzuleak *espaniar baino* ez kategoriatik *euskal herritar baino* ez kategoriara doan bost graduko kontinuumean kokatu behar zuen bere burua.

Euskal abertzaletasuna deitu den aldagaia ere klasikoa da. Hamar graduko eskalan, mutur baten *bat ere ez euskal abertzale* eta bestean *euskal abertzale*, norberaren burua kokatu behar zuen erantzuleak.

Oro har esanda, hiru aldagai horiek euskararen aldeko jarrera mesedegarriei eragiten die: jarrera mesedegarriak dituztenak gehiago dira euskara presente dutenak, eta haien burua euskal herritar eta abertzale dutenak.

5. Ondorioak

- Lehendabizi, edozein plangintza-neurri indarrean ipini aurretik neurri horrekiko eragin nahi den gizataldeak nola bizi duen egoera eta zer dagoen prest onartzeko argi izan behar da, plangintza eraginkorra burutu nahi bada. Horretarako, eta euskararen aldeko plangintzari dagokionez, ezinbestekoa da erdaldunen jarreraren diagnostiko zabala egitea.
- Udaletan bideratzen den plangintzak euskararen inguruan gizartean dauden aurreiritzi mesedegarri eta oztopatzaileak ezagutu, aintzakotzat hartu eta aldaketa sozialari eragiteko esku hartu behar da, lehenak indartzeko eta bigarrenak indargabetzeko.
- *Arrosa koloreko etorkizuna* deitu den aurreiritziak aparteko aipamena merezi du. Euskararen galera ekidinezinaren diskurtso katastrofistan jausi gabe, euskararen egoeran dagoen hizkuntza batentzat konpromisoa ezinbestekoa dela argi utzi behar zaio gizarteari: euskarak, lehen bezala orain ere, denon konpromisoa behar du, eta etorkizunean ere beharko du.
- *Euskara zaila da; ezinezkoa da heldutan ikastea; elebitasuna ez da posible; eta heziketa txarrekoa da norbaitek euskaraz ez badaki euskaraz egitea* aurreiritziak indargabetu behar dira ikaskuntza eta hiztun berrien erabilera erabat eragozten dutelako. Euskara heldutan ikasteko zailtasunak ukatu gabe, ikaste prozesuaren arrakastan neurri baten euskararen presentzia-mailak eta ikasleak duen motibazioak ere eragiten du. Gainera, euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteko motibazio eta helburu ezberdinak daude: xehe zehatz baterako pixka bat ikastetik (esate baterako, seme-alabei etxeko-lanekin laguntzea, lagun euskaldunei euskaraz egiten dutenean ulertu ahal izatea) gaitasun komunikatibo osoa eskuratzearaino; eta denak kontuan hartu, baloratu eta sustatu beharko liriateke. Heldu denek ez dute zertan eskuratu gaitasun-maila bera, norberaren helburuaren arabera gaitasun-maila bat edo beste helmuga izatea komunitate euskaldunak zilegi antzemateko ekimenaren bat ere egokia litzateke. Bestalde, euskaldun berrien legitimazioari begira aparteko ahaleginak egin beharko liriateke.
- Heldu erdaldunek ikasteko beste eskaintza-mota batzuk eskatu dituzte, ludikoagoak, eta bereziki arrakastatsua izan liteke seme-alaben jarduerekin batera lotuz gero. Izan ere, 3.2 azpiatalean erakusten den bezala, euskararekiko jarrera mesedegarri gutxiago izan ditzaketen artean ere ekimen horiek arrakastatsuak izan daitezke. Gainera, *bai-bainako* deitu den taldearen ezaugarrietarik bat asko (%60a) 26-40 adin-taldean egotea da (Amorrortu eta beste 2009: 278), hots, seme-alaba txiki edo gazteak izateko adinean. Jarrera positiboak transmititzeko eta seme-alabak elebidunak izan daitezen guraso erdaldunen garrantzi estrategikoa aintzakotzat hartuta, plangintza-neurri bereziak hartu beharko liriateke haiei begira eta seme-alaben testuinguruan.

- Arestian esanda bezala, gizarte osoaren, baita erdaldunen, konpromisoa ezinbestekoa da. Baina kontuan hartu behar da, euskara norberak ikasteko edo seme-alabek ikas dezaten ahalegina egiteko zein euskararen aldeko edozein plangintza-neurri sustatzeko, batetik, motibazio ezberdinak eta, bestetik, konpromiso-mota eta maila asko egon daitezkeela; denak baliatu beharko lirateke euskararen normalizazioari begira.
- Ikerketa honetan atera diren ideiak kontuan izanda, eta lehen ondorioari lotuta, ezein esku hartze-neurri diseinatu eta indarrean ipini aurretik, eragin nahi den gizataldea ondo ezagutu behar da, zein jarrera dituen, zer dagoen prest onartzeko eta egiteko kontuan izanda abiatzeko. Ikerketa honek datu orokorrak ematen ditu, EAE mailakoak, baina herri zehatz baten hizkuntza-plangintza egin aurretik herri horretan diagnosia egitea ezinbestekoa da; komunitatea ondo ezagutzen dutenek soilik eragin dezakete plangintza eraginkorra.

Esker ona:

Eskerrak eman nahi dizkiegu lana egiten lagundu diguten guztiei: lehendabizi partaideei, galde-sorta erantzun dutenei eta, bereziki, mahai-inguruetan parte hartu duten solaskideei. Horrezaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, diruz lagundu baitu artikulu honek oinarri hartu dituen datuak arakatzeko Amarauna ikerlari-taldeak burutu duen ikerketa. *Amaraunakide* diren Itziar Idiazabal, Andoni Barreña eta Belen Urangaren ekarpenak ezinbestean aipatu eta eskertu beharrekoak dira.

Aipatutako lanak:

Amorrortu, E.; Ortega, A.; Idiazabal, I; Barreña, A., 2009, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Amorrortu, E.; Ortega, A., 2009, "Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek haien seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan? *Euskara Aldizkaria* 54: 579-602. Bilbao: Euskaltzaindia.

Eusko Jaurlaritzak, 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritzak, 2009, *IV. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Ortega, A.; Amorrortu, E., 2010, "The Attitudes of Non-Minority Language Speakers to Minority Language Revitalization: What are Non-Basque Speakers Prepared to Do for Basque?", Proceedings of FEL XIV Conference *Reversing Language Shift: How to Re-awaken a Language Tradition*, H. G. Lewis eta N. Ostler (arg.), 52-59.

Moreno Cabrera, J. C., 2000, *Dignidad e igualdad de las lenguas: crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza.

Estibaliz Amorrortu-

Deustuko Unibertsitatea

Hizkuntza Moderno eta Euskal Ikasketen Saila (Bilbo)

esti.amorrortu@deusto.es

Ane Ortega

Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola

Hizkuntzen Didaktika Saila (Bilbo)

aortega@eumbam.org